

GATAZKARI AMAIERA EMAN DION AKORDIOA SINATU DUGU

STEILASEK ZORIONAK eman nahi dizkizue gizarte ekimeneko ikastetxeetako sindikatuok bultzatu ditugun manifestazioa, elkarretaratze eta , batez ere, greba deialdiekin bat egin duzuen langile guztiei. Lortutako akordioa zuen borrokari esker izan da. Uste dugu merezita daukagula lortutako guztia. Beste behin, argi eta garbi geratu da borroka dela Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalek langileon lan baldintzaetan hobekuntzak proposatzeko bide bakarra. Borrokarik gabe ez dago benetako negoziazioa.

Patronalen arduragabekeria salatu behar dugu, ere bai. Ez da bidezkoa 14 greba egun aurrera eraman behar izateak patronalak gatazka luzatzeko estrategiatik aterarazteko. Agerian geratu da STEILASEK eta gainontzeko sindikatuok egindako aldarrikapenak zentzuzkoak eta egingarriak zirela. Patronalek 2019an bukatu zen gatazkan akats berdinak egiten eta langileekiko begirune gutxi adierazten jarraitu izan dute oraingo honetan ere bai. Negoziazioan zehar patronalek adierazi duten jarrera gogor salatzen dugu, izan ere, artifizialki bizirik mantendu duten gatazkek ez dio inori mesederik egiten.

Azkenik, atzo, otsailaren 5ko ordu txikietan, patronalen proposamenak STEILASEK eta gainontzeko sindikatuok eskatutako aldarrikapen bloke guztietan edukiak izan zituen. Hortaz, Lan Harremanetarako Kontseiluaren Bilboko egoitzan EAEko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetan greba deialdiarekin amaiatzeko akordioa sinatu genuen STEILASEK, ELAK, CCOOK, UGTK, Kristau Eskolak eta AIZE-IZEAK. Lan gatazkari amaiera eman zion akordioak.

Akordioak jasotakoa aztertuz gero, lorpen handia dela ondorioztatu beharko genuke:

1. KPIa bermatuta 2024a arte %16ko igoerarekin, eta finantzaketarekin lotu gabe.
DBH I eta DBH II ren soldata ekiparazioa kasu guztietan.
2. 25-26 ikasturtetik aurrera eskola-ordu 1 murriztu etapa guztietan.
3. Lan pertsonalerako orduak 24-25 kurtsoan 4 eta 25-26 kurtsoan 5.

4. TEJI: 38 orduko murrizketa urteko lanaldian
5. HLE: 20 orduko murrizketa urteko lanaldian. Ordu osagarrietan hobekuntzak: jardun osoan astean 3 ordu eta jardun partzialean 2 ordu. Jardun erdia baino gutxiagoko kontratazioak ez dira egingo
6. AZP: urtean 25 ordu gutxiago.
7. Lanbide Heziketa: hitzarmenean ezarritako lanaldia gainditzen duen irakastordu bakoitza, 1,3 ordu ez-presentzialekin konpentsatzea. Igoera horrek ezingo du astean 4 eskola-ordu gainditu. 6 eskola-ordu astean FCT, Goi Mailako eta Dual Orokorreko Lanbide Heziketarako, 3 ordu Oinarrizko Lanbide Heziketarako eta 1,5 ordu Lanbide Heziketa Dualeko Erregimen Intentsiborako. Tailerretan laguntzako presentzia-orduak.

Baina goraipatu behar dugu berriro ere akordioa ez dela lortu aparteko negoziazio prozesu bati esker. LHKn izandako negoziazio prozesua Gizarte Ekimeneko langileen borrokan azken urratsa izan da. Eta borroka gogor eta luze honetan STEILASek beste sindikatuekin elkarlana sustatu du momentu oro borroka eraginkorra izan zedin eta sektore osoari eragiten dion akordioa lortzearren.

Eta lortu dugu, grebalariok egindako presioari esker sinatutako akordioak sektoreko langile guztiei eragiten die.

Patronalek amore eman behar izan dute. Gure aldarrikapenak, zilegi eta neurrizkoak, onartu behar izan dituzte azkenik patronalek. Bide hau guztia, ordea, luze bezain gogorra izan da, eta grebalariok erakutsi ditugun adore, kemena eta batasuna eredugarriak izan dira, benetan. Pozik eta harro egoteko arrazoiak ditugu! Erne ere bai bagaude, jakin badakigulako orain arte patronalek grebek behartuta soilik gure lan baldintzak behar bezala negoziatzen dituztelako! Gora zuek eta gora langileon borroka! ZORIONAK!!

Irakaskuntzan, STEILAS



HEMOS FIRMADO EL ACUERDO QUE PONE FIN AL CONFLICTO

STEILAS quiere dar las ZORIONAK a todas las personas trabajadoras que os habéis sumado a las manifestaciones, concentraciones y, sobre todo, a las convocatorias de huelga que hemos impulsado los sindicatos de los centros de iniciativa social. El acuerdo alcanzado ha sido gracias a vuestra lucha. Creemos que nos merecemos todo lo conseguido. Una vez más, ha quedado claro que la lucha es la única vía para que las patronales Kristau Eskola y AICE-IZEA propongan mejoras en las condiciones laborales de las/los trabajadoras/es. Sin lucha no hay verdadera negociación.

También tenemos que denunciar la irresponsabilidad de las patronales. No es de recibo tener que llevar adelante 14 días de huelga para sacar a las patronales de la estrategia de alargar el conflicto. Queda claro que las reivindicaciones de STEILAS y del resto de sindicatos eran razonables y factibles. Las patronales han seguido cometiendo los mismos errores que en 2019 y mostrando muy poco respeto hacia las/los trabajadoras/es. Denunciamos con firmeza la postura mantenida por las patronales durante toda la negociación. El conflicto que artificialmente han mantenido vivo no beneficia a nadie.

Finalmente, ayer a altas horas de la noche del 5 de febrero, la propuesta de las patronales por fin tuvo contenido en todos los bloques reivindicativos reclamados por STEILAS y el resto de sindicatos. De este modo, en la sede del Consejo de Relaciones Laborales en Bilbao, STEILAS, ELA, CCOO, UGT, Kristau Eskola y AICE-IZEA firmamos el acuerdo de fin de huelga en los centros de Iniciativa Social de la CAPV. El acuerdo puso fin al conflicto laboral.

Si analizamos lo recogido en el acuerdo, vemos que se han alcanzado grandes logros:

1. El IPC garantizado con un incremento del 16% hasta 2024 y no vinculado a la financiación. Equiparación salarial de la ESO I y ESO II en todos los casos.
2. A partir del curso 25-26 reducción de 1 hora lectiva en todas las etapas.
3. 4 horas de trabajo personal en el curso 24-25 y 5 en el 25-26.
4. TEJI: Reducción de jornada de 38 horas anuales

5. EAE: reducción de jornada de 20 horas anuales. Incremento de las horas complementarias: 3 horas semanales a tiempo completo y 2 horas a tiempo parcial. No se realizarán contrataciones con menos de media jornada.

6. PAS: 25 horas menos al año.

7. Formación Profesional: Compensar con 1,3 horas no presenciales cada hora lectiva que supere la jornada establecida en convenio. Este incremento no podrá superar las 4 horas lectivas semanales. 6 horas lectivas semanales de FCT en Formación Profesional de Grado Superior y Dual General, 3 horas en Formación Profesional Básica y 1,5 horas en Régimen Intensivo de Formación Profesional Dual. Horas de presencia de apoyo en talleres.

Pero debemos destacar que, una vez más, el acuerdo no se ha alcanzado gracias a un proceso de negociación extraordinario. El proceso de negociación en el CRL ha sido el último paso en la lucha de las y los trabajadoras/es de Iniciativa Social. Y en esta dura y larga lucha STEILAS ha fomentado la colaboración y unidad de acción con otros sindicatos para que la lucha fuera efectiva en todo momento y para lograr un acuerdo que beneficie a todo el sector.

Y lo hemos conseguido, el acuerdo firmado gracias a la presión ejercida por las trabajadoras/es que hemos secundado las jornadas de huelga, afecta a todas las personas trabajadoras del sector.

Las patronales han tenido que tirar la toalla. Nuestras reivindicaciones, legítimas y ajustadas, han tenido que ser finalmente aceptadas por las patronales. Todo este camino, sin embargo, ha sido tan duro como largo, y el coraje, la valentía y la unidad que hemos demostrado las y los huelguistas han sido realmente ejemplares. ¡Tenemos motivos para estar contentas/os y orgullosas/os! También en alerta, porque somos conscientes de que hasta ahora las patronales sólo han negociado nuestras condiciones laborales obligadas por las huelgas! Gora zuek eta gora langileon borroka! ZORIONAK!!

Irakaskuntzan, STEILAS



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus